



Sebastián BARROS | EUROPA PRESS

IKUSMIRA

BETETZEA LORTZEN EZ DEN BAKE AKORDIOA

Gustavo Petro Kolonbiako presidentek Nazio Batuen Erakundeko Segurtasun Kontseiluari eskatu dio 2016an Habanan FARC-EP gerrillarekin sinatutako bake akordioaren inplementazioaren epea luzatzeko. Lu-
rraren erreforma, parte hartze politikoa, biktimen erreparazioa, legez kanpoko drogen auzirako soluzioak, ga-
tazka armatuaren amaiera eta inplementazioa bera jasotzen zituen Juan Manuel Santosen Gobernuak eta ge-
rrillak orduan sinatu zuten akordio mamitsuak. Hura betetzeko hamabost urteko epea ezarri zen. Orain,
Petrok epe hori «bost edo zortzi» urtez luzatzea eskatu du. Izan ere, aurreko gobernuak, uribismoaren esku-
tan, ezer gutxi aurreratu zuen borondate politiko ezagatik. Horrez gain, Petroren Gobernuak aitortu duenez,
«inplementazioa eragotzi duten egiturazko oztopoak» daude. Habanako akordioaren inplementazioa presi-
dentearen «Bake osoa» estrategiaren barruan dago. Gaur egun ELN gerrillarekin negoziatzen ari dira, Segun-
da Marquetalia-rekin elkarriketak hasi dituzte, eta EMCrekin hasitakoak izoztuta daude. Ainar LERTXUNDI